



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ESP. ZENBAKIA	2016PLE0001
GAIA	2016-02-19KO OSOKO BILKURA

**2016-02-19ko OHIKO UDALBATZA**

Bertaratuak

- Jose Luis Ugartemendia Arregi
- Iruñe Echeverria Amilibia
- Pedro Mari Otaegi Urquizu
- Maria Dolores Otaño Garciarena
- Manuel Labaka Garmendia

Idazkaria

- Lierni Muñoa Salaverria

Bilkurari hasiera 18:00 eman zaio.

Aztergaiak

1. Gaia: AURREKO AKTA ONARPENA
2. Gaia: 2016-01-01EKO BIZTANLE ZIFRA OFIZIALA
3. Gaia: UDALITZ . EUDELEN PROPOSAMENA
4. Gaia: DEKRETUEN BERRI EMATEA
5. Gaia: GALDERA ERREGUAK

**1.- AURREKO AKTA ONARPENA**

Osoko bilkurak aho batez, 2015-12-18ko akta onartu da.

**2.- 2016-01-01 EKO BIZTANLE ZIFRA OFIZIALA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena:- 2016-01-01 eko biztanle kopuru ofizialaren proposamena 166 biztanlekoa izatea

Bigarrena.- INE ri honen berri ematea.

**3.- UDALITZ. EUDELEN PROPOSAMENA**

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Eudelek egindako ondorengo proposamenetarea atsikitzea Udalhitzaren hitzarmena sinatu bitartean:

1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA PRODUKTIBITATERAKO zerbitzugintza publikoa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta erakundearen produktibitatea hobetzeko.

2.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.



BEIZAMAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Bigarrena.- EUDELi honen berri ematea

#### **4.- DEKRETUEN BERRI EMATEA**

Alkateak 2015eko 78 eta 81 eta 2016ko 1 eta 6 bitarteko dekretuen berri eman du.

#### **5.- GALDERA ERREGUAK**

Ez da halakorik izan.

Osoko bilkura, 18:45 etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoera gertatu ondoren honakoa sinatzen dut.

Beizaman, 2016ko otsailaren 23an

Lierni Muñoa Salaverria  
Idazkari Kontu-hartzailea